

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

12/2021 TXOSTENA

**Gaia:** Tellaetxe tar Josu kaleko bidegurutzea egiteko obra kontratua aldatzea

**Espediente tramitatzaila:** Urigintza, Obra eta Ingurumen saila

**Espediente zenbakia:** KON\_IS\_0010 (2020)

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
<b>Espedientean:</b>		
Kontratua indarrean dago	Bai	
Aldaketaren interes publikoa justifikatu da eta aldeko proposamen teknikoa dago	Bai	
Aldaketa ez bada pleguetan aurreikusi:		
Justifikatutako arrazoia legez ezarrita dago	Bai	
Ezinbestekoan bakarrik proposatzen da aldaketa	Bai	
Derrigorrezkoak dira(%20ra arte)	Bai	
Prozedura jarraitu da	Bai	
<b>Proposamenean:</b>		
Organo eskumenduna zuzena da	Bai	
Formalizatu behar da	Bai	
Kontratugilearen profilean argitaratuko da (207.4)	Bai	

Ondorioa	Oharrak
<b>X Aldeko txostena</b>	Txosten hau Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 203-207, 335.2 eta 242. artikuluetan eta hurrengoetan zehaztutakoa kontuan hartuz egin da.



Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.  
Hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan  
Jurdana Uriarte Lejarraga  
Idazkari nagusia

*Orri oinean sinatzailea eta data*

*1Sektore Publiko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikulua. Kontratua aldatzeko ahala.*

*1. Kontratistaren ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua egikaritzeko epea luzatzeari buruz lege honetan aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, administrazio-kontratuak soilik interes publikoko arrazoientatik aldatu ahalko dira, eta azpiatal honetan aurreikusitako moduan, 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz betiere, 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.*



2. Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan;

b) **Aparteko kasuetan, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 205. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.**

Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da eta beste bat egingo da kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, lizitazio publiko berri baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, lege honetan ezarritakoari jarraituz, eta alde batera utzi gabe segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu publikoaren arrazoiengatik edo hondamen arriskuagatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko kontratistak duen betebeharrari dagokionez 213. artikularen 6. apartatuan xedatutakoa.

3. Kontratu-aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraituz argitaratu beharko dira.

204. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusitako aldaketak.

1. Administrazio publikoen kontratuak, indarrean daudenean, soilik hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte aldatu ahalko dira, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada modu honetan eta eduki hauekin:

a) Aldaketa-klausulak modu argi, zehatz eta zalantzagabean formulatuta egon beharko du.

b) Halaber, haren edukiari dagokionez, aldaketa-klausulak honako hauek zehaztu beharko ditu behar besteko xehetasunarekin: norainokoa, mugak eta izaera; hartaz baliatu ahal izateko baldintzak, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei, eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura.

Aldaketa-klausulak ezarriko du, halaber, aldaketak ezingo duela berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk. Aldaketa-klausularen formulazioak eta edukiak halakoak izan beharko dute, non, batetik, hautagaiek eta lizitatuzaileek haien norainoko zehatza ulertu ahalko duten eta modu berean interpretatu ahalko duten eta, bestetik, kontratazio-organoari aukera emango dioten bai egiazki egiaztatzeko lehenengoek eskatzen diren gaitasun-baldintzak betetzen dituztela eta bai zuzen baloratzeko horiek aurkeztutako eskaintzak.



2. Kontratazio-organoek ezingo dute inoiz ere aurreikusi administrazio-klausula partikularren agirian hasierako kontratuaren izaera orokorra alda dezakeen aldaketarik.

Nolanahi ere, izaera orokorraren aldaketatzat hartuko da eskuratuko diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak beste batzuekin ordeztzea edo kontratu mota aldatzea. Ez da hartuko kontratuaren izaera orokorraren aldaketatzat obra-unitateren bat, horniduraren bat edo zerbitzu jakinen bat ordeztzea.

205. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak.

1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) Justifikazioa izatea artikuluko honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean. B

b) .Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzea.

2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikuluko honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:

a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutako obrak, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:

1.a Kontratatutaz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatutaz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handitzat hartuko kontratatutaz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.



b) *Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:*

*1.a Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldatetaren beharra.*

*2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.*

*3.a Kontratuaren aldatetak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldatetak ez gainditzea, kontratuaren aldateta horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldateta batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.*

c) *Aldaketak funtsezkoak ez izatea. Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoï dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.*

*Kontratuaren aldatetak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldatetak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:*

*1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.*

*Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratistari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldateta gehitzeak.*

*2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.*

*Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldatetaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.*

*3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.*

*Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:*

*(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuen kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuen kasuan; edo, bestela, 20.*



*artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea. (*

*(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.*

*206. artikulua. Kontratu-aldaketen nahitaezkotasuna.*

*1. 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, berekin dakartenean, bakarka edo osotara, kontratuaren hasierako prezioaren zenbatekoa ehuneko 20 edo hortik behera aldaraztea, BEZik gabe.*

*2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio-organoak aldaketa hori egitea erabakitzeko, idatzizko adostasuna adierazi behar du kontratistak aurrez; bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, 211. artikulua 1. apartatuaren g) letran ezarritakoari jarraituz.*

*207. artikulua. Prozedurako berezitasunak.*

*1. Lege honen 204. artikuluan aurreikusitako kasuan, kontratu-aldaketak administrazioklausula partikularren agirietan zehaztutako moduan egingo dira.*

*2. Kontratua 205. artikuluari jarraituz aldatu aurretik, entzun egin beharko zaio proiektua edo zehaztapan teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek idatzi baditu, zerbitzukontratu baten ondorioz. Hala, hiru eguneko edo gehiagoko epean, egokitzen jotzen dituen oharra egin ahalko ditu.*

*3. Erregulazio harmonizatuko kontratu bat aldatzen duten kontratazio-organoek –IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzuen kontratuen eta zerbitzu horien emakiden kontratuen kasuetan izan ezik–, 205. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dute aldaketari buruzko iragarkia, lege honetan ezarritakoari jarraituz. Halaber, indarrean dagoen bitartean kontratua aldatu duten kontratazio-organoek, alde batera utzita kontratu hori erregulazio harmonizatukoa den ala ez eta zein den aldaketa justifikatzen duen arrazoia, argitaratu egin beharko dute, nolahi ere, aldaketari buruzko iragarki bat kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean hura onesten denetik 5 eguneko epean; eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik*



*bildutako txosten guztiak ere aurkeztu beharko dira, horren barnean direla adjudikaziodunak aurkeztutakoak edo kontratazio-organoak berak emandakoak.*

*4. 191. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten 191. artikuluan ezarritakoa.*

*242. artikulua.*

*Obra-kontratua aldatzea.*

*1. Lege honen 206. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen diren obra-kontratuaren aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.*

*Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.*

*2. Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliodunez entzun ondoren.*

*Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz.*

*3. Aldaketak geroan behin betiko ezkutaturik geratuko diren obra-unitateak hartzen dituenean, haien neurketa partziala egin baino lehen, dagokion administrazioaren Kontu-hartzaitzari eman beharko zaio horren berri, gutxienez ere bost egun lehenagotik, egokitzen jutzen badu neurketa horretara joan dadin inbertsioa materialki egiaztatzeko bere eginkizunak betetzera; hori, halere, ez da eragozpena izango obrak amaituta haien harrera egiteko 243. artikulua 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz –210. artikulua 2. apartatuarekin lotuta dago hori–.*

*4. Obra-zuzendari fakultatiboak, proiektua aldatu beharra ikusten badu eta horretarako lege honetan araututako baldintzak betetzen badira, baimena eskatuko dio kontratazio-organoari, dagokion espedientea hasteko. Espedientea honela gauzatuko da:*

- a) Proiektuaren aldaketa idatziz eta onespren teknikoa emanez.*
- b) Kontratistari eta proiektuaren idazleari entzunez, gutxienez hiru egunez.*
- c) Kontratazio-organoak espedientea eta beharrezko gastu osagarriak onetsiz.*

*Hala eta guztiz ere, honako hauek ez dira aldaketatzat joko:*



*i. Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera.*

*Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-amaierako ziurtagirian jaso beharko da.*

*ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanek finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.*

*5. Baldin eta obra-kontratua aldatzeko izapidea dela-eta obrak osorik aldi baterako bertan behera utzi behar badira, eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten badizkio, eta obrak agindu dituen Estatuko Administrazio Orokorra, haren organismo autonomoak, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzailearen bat edo zerbitzu erkideak direnean, edo Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde publikoak direnean, halakoetan, ministroak aukera izango du obrek behin-behinean aurrera jarrai dezatela agintzeko zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera, baldin eta aurreikusitako gehieneko zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 20tik gorakoa ez bada BEZik gabe, eta kreditu egoki eta nahikoa badago obra finantzatzeko.*

*Kasu horretan izapidetu beharreko behin-behineko jarraipen-espeditentean, honako hauek baino ez dira sartu beharko:*

*a) Obra-zuzendari fakultatiboaren proposamen tekniko arrazoitua; bertan, hauek jasoko dira: aldatetaren gutxi gorabeherako zenbatekoa, egin beharreko obren oinarrizko deskribapena, eta aldaketa 203. artikulua 2. apartatua aurreikusitako kasuetako baten arabera izateari buruzko justifikazioa.*

*b) Kontratistari entzunaldia ematea.*

*c) Kontratazio-organoaren adostasuna.*

*d) Kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria.*

*e) Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren txostena, baldin eta proposamen tekniko arrazoituan prezio berriak sartzen badira.*

*Txostenean arrazoitu beharko da prezio berriak nola egokitzen zaizkien merkatuko prezio orokorre, 102. artikulua 3. apartatua ezarritakoari jarraituz.*

*Behin-behineko baimena emateko erabakia hartzen denetik sei hilabetera, teknikoki onartua*





*behar du proiektuak, eta, zortzi hilabetera, kontratuaren aldaketari buruzko espedienteak.*

*Zortzi hilabeteko epe horren barruan, aurreikusitako obra-unitateen artean, gerora behin betiko ezkutuan geratuko ez diren zatiak gauzatzeari emango zaio lehentasuna.*

*Behin-behinean obrak hasteko ministroaren baimenak, zeina ministerio-sailaren estatu-idazkariei bakarrik eskuordetu ahalko baitzaie –hala egin behar izanez gero–, berekin ekarriko du Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan gastua onestea; hori, halere, ez da eragozpena izango kontratuaren aldaketa onesteko unean egin beharreko doikuntzak egiteko.*

*Zortzi hilabeteko epearen barruan egindako obrak direla-eta, ziurtagiria emango da, eta lege honetan aurreikusitako eran ordainduko dira, honako berezitasun honekin:*

*Espediente aldatuaren izapidetzean zehar egin beharreko ziurtagiriek, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitateak dituztenek, erreferentziatzen hartuko dituzte proposamen tekniko arrazoituan ageri diren prezioak; haien ordainketak kontura egindako behin-behineko ordainketak izango dira, eta proiektu aldatua onetsi ondoren egin daitezkeen zuzenketa eta aldaketa menpe egongo dira; hori guztia, halere, ez da eragozpena izango amaierako neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketa, eta ez dute inolaz ere berekin ekarriko biltzen dituzten obrak onestea eta hartzea.*

*255. artikulua. Proiektua aldatzea*

*Kontrata burututakoan, kontratazio-organoak lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpitalean eta 261. artikuluan 1. apartatuaren b) letran xedatutakoaren arabera baino ezingo ditu sartu aldaketak.*

*Emakidaren ekonomia- eta finantza-planak beti jaso beharko ditu, horretarako egin beharreko doikuntzak eginda, kostuak handitzeak edo murrizteak dakartzan ondoreak.*

*262. artikulua*

*1. Kontratazio-organoak erabaki ahalko du, **interes publikoak** hala eskatzen duenean eta lege honetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, obrak aldatzea, bai eta haiek zabaltzea ere. Beharrezkoa bada, plan ekonomiko-finantzarioa berrikusteari ekingo zaio, inguruabar berrietara egokitze aldera.*

*2. Emakidaren oreka ekonomikoan eragina duen edozein aldaketa egiteko, aldaketarako arau orokorrei eta lege honetako 270. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.*

